



Helduen Literatura

Euli-giro
Uxue Alberdi
Susa, 2013

Dena ez dago gure esku

AULKIAK atzean utzi —*Aulki bat elurretan* (2007) eta *Aulki jokoa* (2009)— eta euliak ekarri dizkigu Uxue Alberdik bere hirugarren liburu hone-tan. Lehen aulkian hotza sentitu genuen Suedia aldeko narrazioekin eta bigarreanean gerraren inguruko oroitzapenak helarazi zizkiguten lagunek samurtasuna sentiarazi ziguten. Hirugarren liburua *Euli-giro* izenburuarekin heldu zaigu eskuartera, hasieratik amaieraraino giro burrunbatsu eta artegatsu hori izango duen ipuin bilduma da, desero-soa. Estilo desberdinak probatzen abila dela erakutsi digu idazle honek, aldaketari eta gauza berriak probatzeari beldur ez dion sortzai-lea dugu.

Izenburuarekin batera azaleko irudiak ere emozio bitxia transmiti-tzen digu: emakume gazte bat dugu guri begira aurrez aurre, baina ezin dugu bere aurpegia ikusi, ezkutuan geratzen baita eskaintzen digun lore hilen sortaren atzean.

Dena ez dago gure esku lehen narrazioan agertzen zaizkigu euliak libu-ruari tonoa emanez, baserri batean dauden pertsonaiak zerbaiten bila daude eta euliek eragotzi egingo diete haien helburua betetzea. *Opa-riak*-en hiritik herrira doaz Añes eta Truko “ekografietako mamuak zakila duela ospatzera” familiarekin. *Oreina* dator hirugarrenetik, prota-agonista neskame doa hil hurrean dagoen Klara anderea zaintzera. *Su txikian* testuan poliziaren galderei erantzuten topatuko dugu etxeko-andre bat bere senarraren suizidioari buruzko galdeketa. *Ezertan lagun diezazuket?* ipuinean Marta Albeniz bere bufetera joan da lanera eta bertan daudenek ez dute ezagutu.

Distopia literarioak narrazioan Martina eta Joana idazle gazteak Benoit editorearen atzaparretan daude. *Kamera estenoipeikoa*-n bi per-sona elkartuko dira etxe batean eta ordura arte bata bestearen bizi-tzan izan duen (eta izan ez duen) arrastoari buruz ariko dira. *Ondo lo egin*-en bikote batek haietako baten ama hartuko du etxean eta meta-morfosi baten lekuko izango dira oso modu inkontzientean. *Preludioa* da amaiera ematen diona bilduma honi, nahiz eta izenburuak hasieraz hitz egiten digun. Bertan txelo-jotzaile bikaina izandako Sara maingu dago istripu baten ondorioz eta proposatuko diote agertokira itzul-tzea Leonard-en, orduko txelo jotzaile promesaren, ezkerreko eskua erabilita.

Narrazioetan egunerokotasunaren tolesak agertzen zaizkigu erre-a-litatearen alde absurdo eta iluna bistan utziz, eta egunerokoaren ziur-gabetasunaren kezka egoera eta elipsien bidez. Gure buruarengan eta gure bizitzan besteek eta inguruneak duten eragina eta dena kontrolatzeko ezintasuna hor dagoela aldarrikatzen du, bizitzaren euli giroan dena ez dagoelako gure esku. ■

Amaia alvarez Uria



Gerrazalekeria eta zurginaren artea

BI ALBUM helarazi dizkigu Txala-parta argitaletxeko Mikel Sotok, tapaki gogorrekoak biak, inpresio-aren kalitateagatik eta irudien oriji-naltasunagatik ikusgarri egiten diren horietarikoak. Bata, *Ez da munduan min handiagoa ematen duenik*, Paco Livanek idatzia —Boli Kostako herri-ipuin batetik abiatu-ta, antza— eta Roger Olmosek ilus-tratua. Hiena bat eta erbi bat ditu protagonistak eta, oro har, zintzo-tasunaz dihardu.

Iban Barrenetxearen *Zurginaren ipuina* dugu bestea, 2012an Euskadi Saria jasotakoa, gaztelaniazko haur eta gazte literaturan. Euskaraz bikain emana dago, Arkaitz Goiko-etxeari esker. Firmin zurgin fina du protagonista, eta Von Bonbus baroi gerrazalearen jokamoldea istorioaren gakoa. Testu luzexka du, albumetan ikusi ohi denarekin alderatuta. Aipamen berezia, hala-ber, lau tolesetan emana eta poste-rraren moduan zabaltzen den ilus-trazioari.

Motzean esanda, ipuin-ipuina da zurginarena, irudimen eta ingenio handikoa, umorea ardatz nagusizat hartu duena. Izugarri dibertitu naiz. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea

